




360n. zenbakia • 2010 Maiatza



www.euskerazaleak.biz
www.euskerazaintza.org

Antiguako Amaren Koroatzearen Oroitzapena 1960-2010 Lekeitio



Urteko batzar nagusia



Adiñekoakaz Italiaren bealdetik txangolari III

Euskalerrian euskeraz EUSKERAZALEAK

2010-2011 IKASTURTEA

BIZKAIERA 43. IKASTAROA IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

Egunak: astelen, eguasten eta barikuetan edo
astearte eta eguenetan

Orduak: Goiz, arratsalde eta gabetan

Ordaña: 140 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
urrutizkiña 423 53 22
Bilbao

Asiera: urriaren 11an

43.º CURSO DE EUSKERA BIZKAINO 3 NIVELES Y CONVERSACIÓN

Días: lunes, miércoles y viernes,
o martes y jueves

Horas: Mañana, tarde y noche

Curso completo: 140 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
Teléfono 423 53 22
Bilbao

Comienzo: 11 de octubre

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitabost euro) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK
BILBAO BIZKAIA KUTXA
2095 0000 74 2000089615

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!
Ebagi orri onetan txarteltxu au, eroan BBK'ra eta ordaindu 25 €.
Ez dozu ezer be idatzi bear.
Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.
Eskerrik asko!

Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

www.euskerazaleak.biz

Laguntzaille



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

Flash Composition, S.L. - Bilbao


www.flashcomposition.com

Urtero'ko Euskerazaleak alkartearen Batzar Nagusia



Bi milla eta amargarren urtean Epaillaren 25ean arratsaldeko zazpiterdiak zirala, Euskerazaleak Alkartearen Zuzendari Batzordeak, aurretiaz deia eginda, Batzar Nagusia egin eban.

Bilbaon, Kolon de Larreategi kaleko 14n zenbakian, 2gn solairuan dagon Euskerazaleak Alkartearen giza-etxean.



AURKEZPENA: Leenengo, batzarrari asiera emoteko, Barroetatar Klaudio Euskerazaleen alkarteko lendakariak adierazi eban batzarraren antolakuntza zelango baldintzatan egingo genduan. Ondoren, zutunik abestu euskun emen agertzen dan bertsoa:

Sarri ospatzen dira
Erriko azokak,
Arro erakutsiaz
Lurreko emaitzak.
Emen, Euskerazale
Batzar nagusiak,
Azaldu gure dauskuz
Egindako lanak,
Aldizkari bietan
Argitaratuak.

IDAZKARIA: Atutxa idazkariak, aurreko Batzar-Nagusiaren agiria irakurri eban eta ontzat artu zan.

2.009ko DIRU KONTUA:

Karmelego arduradunak auxe esan euskun:

Urtero lez, 2009 urteko kontuak emongo dautsu-edaz.

Aurten be, betiko moduan zorkarian amaitu dogu, ba dakizue proyecto guztitarako Foru Aldundiak, % 60 emoten dasku, orduan guk % 40 ipiñi bear dogu.


D. Martin il zanean 8.200,00 euro itzi ebazan Al-karterako, orduan aurten diru laguntza desbardiña sartu da.

Ez da asko, baña erderaz esaten da "EL QUE DA TODO LO QUE TIENE NO ESTÁ OBLIGADO A DAR MÁS". Orduan eskerrak emongo dautsoguz Dn. Martini. Laguntza ori esker aurrera goaz. Datorren urtean Foru Aldundiak gitxituko dau diru laguntza. Ikusi arte daukagun dirua luza-tuko dogu.

Beste barik, datorren urterarte, Jaungoikoa lagun.

DIRUZAINTZAREN ARDURADUNA

Fernandez eta Ruiz de Eskidetar Karmelego



URTEKO EKINTZAREN AZALPENA:

Arlo onen azalpena, Barroetatar Klaudiok adierazi eban lendakari lez.

EUSKERAZALEAK ALKARTEA 2.009n URTEKO EKINTZAK

(Batzar Nagusiko Itzaldia)

Adiskideok:

Urte guztietan lez, Batzar-Nagusi onetan, urte bar-ruan egin doguzan lanen barria emoten dogu.

1.- Illeroko Batzarrak eta Urterokoa:

Utsik egin barik bete dogu illeroko batzarra eta urterokoa egiteko zeregiña. Atutxatar Paulek gure bazkide eta idazkariaren BATZAR AGIRIETAN ikusi daiteken lez.

2.- Ipuin-sariketa:

Urte guztietan lez eginda, Bilbaoko Udalaren laguntza eta babesagaz, oneik izan dira aurtengo sarituak:

- 1go SARIA: Legarreta tar Asier
- 2gn SARIA: Murua tar Jose Mari.
- 3gn SARIA: Merino tar Palmi.

3.- Euskal Astea:

Euskeraren Astea be ospatu dogu Zemendiaren 23an. egunetik ogeitazazpi garrenera:

- 23- Astelenean Atutxa tar Paul
- 24- Otamendi tar Patxi
- 25- Uriarte tar Ana
- 26- Larrea tar Angel
- 27- Barikuan Atutxatar Paulek bere bigarren berbaldia azaldu eban.

4.- TAKOA BIZKAIERAZ

Betikolez takoa argitaratu dogu Bizkaiko Foru Aldundiaren diru laguntzarekin. Diru laguntza badogu, jarraituko dogu Takoa argitaratzen baña ori murrizten badauzkue ez da erreza izango guk bakarrik argitaratzea. Aurten ez dakigu zer gertatuko dan; orregaitik Uztailla arte ez dogu ezer jakingo. Gu orri atzean agertzen dan textoa idazten gagoz. Konturako zarie urtero desbardiña dala eta 365 zatitxo idaztea lan aztuna dala, gura badogu desberdiña izatea.

Betikolez, Takoak Durangoko Azokan arraskasta aundiena izan eban. Jendea oitu da an eskatzen eta zuzen joaten dira Gerediaga Elkarteko standera gure takoa eskatzera. Gainera “Takoa bizkaieraz” eskatzen dabe.

Beste leku batzuetan be banatzen dogu: eskoletan, ikastoletan, parrokia batzuetan (Iurreta, Gorozika, Zornotza e.a.) eta mugako errietan (Aretxabaleta, Bergara, Aramaiao, Motriku. Gasteiz, e.a.)

5.- EUSKERAZALEAK INTERNETEN

Gure web orria ortxe jarraitzen dau eta orain arte 126.000 bisitak euki doguz. Eskatzen dabien informaziñoagaitik badakigu geiena Unibertsitatetik eta orrelako lekuetatik datozela ainbeste bisita. (Deustu eta Errioxako Unibertsitatetik)

Barruen daukan informaziñoa obetzen saiatzen gara, naiz eta batzuetan pentsatu antzerakoa dala.

Prest gagoz beste lan batzuk jartzeko baña “baime-nak” bear doguz eta ez da erreza ori lortzea.

Baten batek eukiten badau zeozer or ipintzeko modukoa prest gagoz. Ez dauka bizkaieraz izan bear “erriko euskerea” izaten bada.

6.- IRAKASKINTZA:

Urte guztietan lez, jarraitu dogu asieratik Alkarte onen elburua izan dan Euskera irakastea. Ikasleak aspaldian ez dira gitxiagotu eta ez ugaritu be. Irakasle betikoak zintzo jarraitzen dabe.

7.- “ZER” ALDIZKARIA:

Gure “ZER” aldizkaria illero agertu da eta asko poztuten gaitu lan onek, bizkaieraz argitaratzen dan aldizkari bakarra dalako.



Argitaratzeko ez daukagu arazo aundirik, baña zabal-tzeko eta saria eskuratzeko Bilbaon gaitz egiten jaku kobratzaille bat aurkitzea eta errietan ezin dogulako kobrau, gitxi ordaintzen dabe BBKko gure kontuan.

Eskerrak irarkolako lana Foru Aldundiak ordaintzen dauskula.

Alan da be, aurrera egiteko asmotan gagoz. Eta zuk be, euskera bizia, errikoa, maite dozunez, lagundu zeinke modu onetara:

- **bazkide barrien izena emonaz.**
- **ZER aldizkarian atarateko lanak bialduz.**
- **Ekonomi arloan eskua luzatuz. Eta diru biltzaleak aurkeztuz.**

8.- ETXEA:

Badaukaguz arazoak etxe zarra dalako daukaguna eta “derramak” edo ordaindu-sariak aundiak diralako, baña al dogun artean aurrera egingo dogu.

Amaitzeko, eskerrak emon bear dautsoguz Bizkaiko Foru Aldundiari eta Bilbaoko Udalari.

Ez gitxiago idazleai, irakurle eta lankide guztiai. Bai ta eskerrak be irakasleei eta ikasleei zintzoak izateagaitik.

**LENDAKARIA
BARROETATAR KLAUDIO**

ZUZENDARITZAREN EGOKITASUNA:

Maikide barriak:

Solozabal tar Paulin eta Ormaetxea tar Emilio il jakuzan lez, euren ordez Arrietatar Nikolas zana- ren omenez, bere iru alabak ezarriko dira:

ARRIETA TA GOYA, Maria Luisa, Begoña ta Itziar.

Ez zan aurkeztu iñork ere Batzar-Kidetasunearako, ta onartu ziren gai guztiak.

Galde-erantzunak:

Anaren erregua, ia baten batek ekarri leikiezan idaz lanak aldizkarietan eta Interneten argitaratzeko, nai ta guk itzultzeko gazteleraz egon.

Baiña ez zan iñork arduratu, Oñate ta Landa tar Agustin (Landajuela sendiaren ordez), izan ezik, idaz lanen baten bat arduratuko zala bialtzen esan ebanez.

Mendebaldeko saria

Maiatzan 8an Euskerazaleak Alkarteari saria emongo dautso Mendebalde Alkartekoak. Eus- kaltzandiaren egoitzxan, Enparanra Barria goizen 12,45an

DN. MARTIN

Diru laguntzagaitik “ONGILLE” izentatuz da, gure alkartean. Esaera da “al daun guztian emoten daunari ezer leio geiago eskatu”.

AMAIERA:

Klaudio lendakariak, batzarrari amaiera emoteko zutundu zan eta bertso au eskeiñi euskun:

**Azokan, betiko lez,
legezko epailleak
pozik saritzen ditu,
barazki onenak.
Euskerazaleako
bazkide garanak,
idazki-lorak doguz,
saritzen dan-danak,
euskera indartzeko
dira-ta bikañak.**

Beste barik eta arratsaldeko bederatzia ta laurenak zirala, batzarra amaitutzat emon genduan.

LENDAKARIA

IDAZKARIA





Leengoak gogoan

Ama Bixenta zenaren altzoan.

Guraso zaar guztiei

1.

Nolatan irauñ dezu,
gaurdaino euskera?
Sarri galdera ori
aotik atera.
Erantzuna bazuen,
gaur duen berbera,
bertsotan esango det
gutxi gora-beera.

2.

Arritzekoa omen da,
ni ez naiz arritzen,
gauza errazagorik
ez bait det aurkitzen.
Eskolan baztertua
"legea betetzen",
diodan miraria
aalik den zeatzen.

3.

Kultur bidetik kanpo,
bide zaillagoa,
txoritxoak gora nai.
gertu arranoa.
Eta zapaltzearren
goitik beera doa.
ortxe gure mintzoak
betiko leloa.

4.

Familiaren muiñak
etxera narama,
eta denok or izan
sortu gindun ama.
Zu or izana zera
irakasle dama,
aitarekin batera
euskeraren lana

5.

Beraz etxekoandre:
zu , ez andereño?
Ez da izan oberik
zu izan ziñan baiño.
Diztira zure baitan
ta kanpoan laiño,
aspalditik asita
orrela gaurdaino.

6.

Ez dezu izan saririk,
ez da orain ere,
zaarsaria non dago
zuretzat andere.
Etxekoandre izanik
irakasle nere,
ama!, zu ortxe ere
aitarekin kide.

7.

Euskeraren babesa
eta eusgarria,
familia, eliza
eta baserria.
Uztarturik bezala,
ura zen Erria !
euskerak ortxe izan du
bere miraria.

Joxemari Murua Goñi-k (1930ekoa)
Donostian, 2010 eko Urtarrilla.

olerkia

1960-06-12

Antiguako Amaren Koroatzearen Oroitzapena



Bagillearen 12an. oroitzen da **Lekeitioko Antiguako Amaren Koroatzearen 50 Urteagarrena.**

Aurreko egunetan elizkizun batzuk ospatu ziran. Bagillearen 2an Antiguako Amaren irudia egon oi dan aldaretik, aldare nausiko egon leku berezi batera aldatu zan.

Jarraiean agurtza esan eta Koroatzerako Ereserki ofiziala abestu zan , Ignazio Aretxabaleta Jaunak eresia ta Eusebio Erkiaga Jaunak itza eraturakoagaz.

Koroatze egunerarte Lumentza mendiko tontorrean Ama Birjiñaren Irudiaren aldaki bat kokatu zan ederto asko argituaz.

Illaren 3n goizeko 7an mezea emonaz bederatzziurruna asi zan, itzaldiak Lekeitioko seme ziran abadeen kontura izanez.

Urrungo egunetan Mezak eta goiz-agurtzak ospatu ziran erriko kaleak zearkatuz.

Illaren 11an Leon Martinez, Bilbo Elizbarrutiko Bikarioak egin eban itzaldia. Egun orreterako kaleak lorakaz tapizaturik egozan, eta plaza, balkoi ta erakusleioak arku artistiku, apaingarri ta ikurrintxuakaz edertuta.

Illaren 12an Koroatzea ospatu zan. Goizaldiko bederatzietan gitxigora-bera, agertzen asi



ziran gonbidatuak: Marzelino Olaetxea Valenziako Gongotzai Jauna, Jabier Lauzurika Oviedoko Gongotzai Jauna, Abilio del Campo Calahorrako Gotzai Jauna, Zacarias Bizkarra Eresoko Gotzai Jauna, Eugenio Beitia Badajozko Gotzai-Laguntzaille Jauna, bai eta agintari zibil eta militarrek.

Goizeko 10tan agintariak agurtu eben Pablo Gurrupide Bilboko Gotzai Jauna, Juan XXIII Aita Santuaren Ordezkarria Koroatzea osatuko ebana.

Goizeko 10:30etan Gurrupide Jaunak emondako Misa Pontifikala ospatu zan.

Eskeintzaldian erriko Alkateak lora txortaen eskeintza burutu eban. Eginkizuna amaitu ostean eleizinguru bira eratu zan Antiguako Amaren irudia karroza batean eroanaz plazan kokatuta egoan lekuraño, Parrokiko Abestaldeak ta Ondarroako Eskolaniako Tipleak kantuakaz lagunduz .

Ementxe ospatu zan Koroatzea. Otoi batzuk esan ostean, Regina Coeli abestu, Agiri-Rescrito Pontifikala deritzona irakurri ta Gurrupide Jaunak berbaldi labur bat esanaz ta erri guztia bedeinkatuz amaitutzat emon zan eginkizuna.

Orren ostean Amaren Irudia Koroi diztiratsua erakutsiz itzuli zan prosezioan Elizaraño, itsasontziak sirena jotzen, kanpaiak dilindaka, ta erriak zapi zuriak eragiñez txalotuten ziarduela. Te Deuma nausikiro abestuz amaitu zan.

Arrastiko 5tan itsasbira ospatu zan. Antiguako Amaren Irudia Parrokitik atara, ta “Madre de la Antigua” arrantzontzian kokatu zan ikurritxu, sare, erremu ta lorez apaindurik.

30 itsasontziren batzuk alboan eukazala Garraitz irla ingurura urreratu zan eta urdin-zuridun baliza bateri bira egin ostean Santa Katalina aldera jo eban eta beste baliza bateri bira eginda, portura itzuli zan, egazontzi txiki bik altura gitxitik lorak jaurtiten ebiezala.



Arrastiko 8'30 tan erriko kaleak eder-eder apaindu ta argiturik egozala zearkatu zituan. Gero Eleizan egin zan azken agurra.

Jose Iñaki de Madariaga Vidal.
Lekeitio 2010-Jorraillak 7.
(Munetxek euskeratua)



CORONACION CANONICA de NTRA. SRA. de la ANTIGUA

12-6-60



2010 LEKEITION

G

ZER 11

Antiguako Amabirjiñaren koroazioko
50 urteagarreneko egitaraua.

2010-Ekaiñak 2. Parrokian

Arratsaldeko 18:00etan: Antiguako Amaren iru-
diaren jatsiera bere aldaretik. Basilika barrutik ibil-
deuna aldare nagusian kokartu arte.

Arratsaldeko 18:30etan: Parrokian: Agurtza, Bede-
ratziurrena ta Salbea.

Arratsaldeko 19:00etan: Meza Santua.

2010-Ekaiñak 3. Parrokian

Goizeko 09:00etan: Meza, Bederatziurrena ta Salbea

Arratsaldeko 18:30etan: Agurtza, Bederatziurrena
ta Salbea.

Arratsaldeko 19:00etan: Meza Santua.

2010-Ekañak 4. Parrokian

Goizeko 09:00etan: Meza, Bederatziurrena ta Salbea.

Arratsaldeko 18:30etan: Agurtza, Bederatziurrena
ta Salbea.

Arratsaldeko 19:00etan: Meza Santua.

Kontzertua

Arratsaldeko 20:00etan Lekeitioko Basilikan,
parrokiko Abesbatza.

2010-Ekañak 5. Parrokian

Goizeko 09:00etan: Meza, Bederatziurrena, Salbea.

Oitura diñonez iru bider agertu ei zan Arantza
Zurian, arrantzaleak baseliatxoa Arantza azitzen
zan lekuan eraiki baño lenago. Iru lekutan ospatu-
ko da Ama Birjiñaren 50 urteurrena:

Agustinatar Lekaimen Konbentuan, Goize-
ko 10:00etan: Meza ta Salbea.

Domikatar Lekaimen Konbentuan: Goizeko
12:00etan: Angelus ta Salbea.

Uribarren Egoitzan, Arratsaldeko 17:00etan: Meza
ta Salbea.

Arratsaldeko 18:30etan: Agurtza, Bederatziurre-
na, ta Salbea.

Arratsaldeko 19:00etan: Meza Santua.



IKUSKIZUNAK: Argazki erakusketa Antiguako
Ama Birjiñari buruz:

Galeria Barandiaranen, Turismo bulegoaren
ondoan, Erriko Udaletxe bean.

Egunak: 7 tik 12rarte, osotan.

Arratsaldeko 18:00etatik 21:00etara.

Bai eta goizeko 12:00etatik 13:30etara, 10, 11, 12
egunetan.

2010-Ekañak 8/9/ 10. Parrokian.

Goizeko 09:00etan: Meza, Bederatziurrena ta Salbea.

Arratsaldeko 18:30etan : Agurtza, Bederatziurre-
na ta Salbea.

Arratsaldeko 19:00etan: Meza.

2010-Ekañak 11. Parrokian.

Goizeko 09,00etan: Meza, Bederatziurrena ta
Salbea.

Arratsaldeko: 18,30etan: Agurtza, Bederatziurrena
ta Salbea.

Arratsaldeko 19:00etan: Meza.

2010-Ekañak 12. Parrokian.

Goizeko 10.30etan: Meza Nagusia
Koroazio Urteurrena ospatuz Mario
Izeta Bilboko Gotzaia buru izanik

KALEAN: Elizkizuna amaitu ostean,
ibildeuna Lekeitioko kaleetatik zear.

Adiñekoakaz Italiaren bealdetik txangolari III



2.009an Dagonillaren 26an.

Asisera joateko bide luzea zalata, goizeko 6:15retan jagi giñan 7:00retan gosaria artzeko.

7:30etan Mari Josek, berebilbusean igonda egon giñanean esan euskun, Erroman debekatuta egoala lantegiak ipintea, berebillak botaten dabezan ko2ekin⁶⁹ naikoa zalako. Eta orain Erromaren goialdeko Unbria, Italiaren Apeninoko mendikate artean ori-urdirin eskualde ederrenera joango giñela.

Benetan ikuspegi ederra euki genduna, Apenino mendikateak beti biztan euki genduzala, eta bidean goazela: Artea, azkasi, aretza, piñu, izai edo zapin⁷⁰, makal, eltzun edo zurtxuri⁷¹, urki, ereiñotz, gorosti gitxi ikusi neban, eta leizarraren arteko ugaritasunean joan gintzazalako.

Baratzetan: Gaztaiñondo, aranondo, keriza, in-txaur, urretx, sagarondo, pikondo, olibondo, jirasol, gari, garagar, zekale⁷², maats, kebelar⁷³, laranondo edo urresagar⁷⁴, eta tomate ugari ikusi nebazan.

Etxeetan eneban nortasun aundirik ikusi, etxea babesteko txapel edo teillatu ona bear daualako.

10etan eldu giñan Apeninoseko mendi-katean dauan Subasio mendiaren goi-aldera, erdia baiño goratsuago dagoan Asis errira, eta talaimendi ortatik, Espoleto deitzen dan zelaitasun aundi bitartetik mendimazelako bizkarrean kokatuta dagon Perusako erria ikuspegi zoragarrian ikusten dana.

Asis, arri landuagaz eginda dagoan erripoli ta baketsu lez agertzen da, 1.997ko Iraillaren 26an euki eben lurikara izan ezik. Ipar mendebalean San Frantziskoren eleiza ta lekairretxe sakratuak koka-

tuta daukaz, eta erdiko Ekialdetik kanpandorreak ta lekairretxearen dorrea bistan dagoz.

Arrigarrizko anditzar guzti ori, arri-erinduko landuan eginda dago, eta XIII ta XIVn. Gizaldietan antze-ederraren trebetasunezko maixuak ornitu eben.

Gotiko itxuran eginda dago goiko basilika edo eleiz nagusia, eta erromatar itxuran beko basilika.

Frantziskotar lekaide batek erakutsi euskun lekairretxe guztia, San Frantziskoren oial ta oiñetako latz, eta berak egin eban lekaidego arauaren agiritik asita.

San Franzisko illobiratuta dago aldare eder ingurutik, eleizak iztukuberrian⁷⁵ margoztuta daukazan margo-irudiak ikusi genduzan, eta 1.997ko lurrikarak egin ebazan kalteak, gaur oraindiño konpontzen dabizenak erakutsi euskun.

Eleizatik urten da, Mari Josek ordu erdiko atsedena emon euskun, eta argazkiak atara, garagardo bat edan eta irolara ostera egin eta gero, Saboia jatetxera joan gintzazan bazkaltzera.

Jaten, ondo baiño obeto emon euskuen, ba makarroi en eragipenetik urten da, ugolo, erris edo arroza olagarroagaz egosita atara euskuen, eta oso gozo ta alai jan gendun, aurrean euki gendun guztia.

Ordubi eta erdietan berebilbusera igon gendun, Erromara urbiltzen goazela Orbietora joateko.

Orbietoko Uria, Arno ta Tiber ibaiaren erdi bitartean eta

(69) ko2 = co2. (70) Izai edo zapin = abeto. (71) Makal, Eltzun edo zurtxuri = chopo. (72) Zekale = centeno. (73) Ke-belar = tabaco. (74) Laran-ondo edo urre-sagar = naranjo. (75) Iztuku-berrian = pinturas realizadas al fresco.

Lurrarteko Itsaso⁷⁶ ta Apeninos kate-mendi bitartean, Unbria lurzabalaren mendiska baten bizkargaiñean kokatuta dago, Terniko probintzi edo lurraldean.

Eta Mari Josek, bidea berebillbusean ibiltzen goazela, Orbietoren asierako edestitik asita, bere gertakizun garrantzitsuenak, ondo baiño obeto argitu euskuzan, adibidez:

Orbieto, Etruriak eukazan 12 Uriartekoa zala, eta jakin ez arren noz agertu ziran, K.a. XIIn. gizaldian gaur Toskana esaten jakon lurraldean, irautez kokatuta egon zirala, eta euren mugak, Po ibarra eta Kanpaniaraiño zabaldu zituezala esan eban.

K.a. IX-IIIIn gizaldi bitartean lortu ebela euren jakintasun aundiena.

K.a. 753ean eurak sortu ebala erromatar Latin, kaizerta ta guda-eritzia. Gero, eurak be iruntsiko ebezanak.

K.a. VII-VIn. gizaldi artean, euren jendekuntzazko gorenean, inguratzen eutsoezan erriak: Umbro, Ligurino, Latino, eta Sabino ak baiño, askoz geiago zirala.

Euren izaerazko gogotasunean gudazale baiño, geiago gura ebela apainkerian eta oporretan ibili.

Eta nai-ta Griegoen jendekuntza euren oiñarria izan, jakituriaren trebetasunezko edertasunean sakontzen baiño, geiago gura ebazalako apaingarrizko edertasunak obari-zaletasunean⁷⁷ ibili, sekula ez zirala oartu, Griegoak demokrazizko askatasunaren bidetik, sortzaille izateko euken almenagaz.

Arria, arbizia, terrakota⁷⁸, eta batez be tupiki edo borontzea lantzeko bereziak izan ziran, gaur eurak terrakotan egineko illobi ederrenak: Britania, Loubre eta Giulio Aita Santuaren erakustokietan diranak, eta baita tupiki edo borontzezko irudietan egineko ainbat gauza erakustokietan zabalduta dagozenak.

Azalezko edesti laburra.

Orbietori buruz: Etruskoak biztandu edo bizitzen joan zirala, eta K.a.

IX-IIIIn gizaldi bitartean erlijiozko “Fanum Voltumae”? garrantzizko biltoki sortu ebela.



K.a. 265'an, Sentinoko lurraldean erromatarren aurkako borroka galdu ebenean, euren mendera aldatu zirala.

K.o. VIIn. Gizaldeen, Orbieton, lenengo Godoak, gero Bizantziotarrak, eta askenez Longobardoak indarrez sartu zirala.

1.137an Orbietoko biztanleak, askatasunezko erriuria izatea erabagitu ebela.

1.157an, IV Adriano Aita Santuak, eleiz laterrien aurka, Orbietoren askatasuna ontzat artu ebala.

XII-XIIIIn gizaldietan, Orbietoko Uria lenengo: “Monaldestxi eta Filippesxi” sendien artean ikaragarritzko anai arteko borroketan sartzen dala, eta geroago “Befiti ta Malkorini” sendi bitartean.

1.354an Orbieto, Gil de Albornoz Kardinalak menperatzen dauala, eta ostera sartzen dabezala eleizaren laterritasunezko agindupera.

1.450ean agintari ezberdin igarota, askenez eleizak euki eben laterrien arteko agintaritzan menderatzen dabe, eta euren artean garrantzienetariko bat izatea lortzen dabela.

1.798an Napoleonek bere kaizertzara sartzen dabela, eta Erromako Errepublikaren errialde⁷⁹ bat bezala geratu zala.

1.816an Napoleonen agintaritzaz ezerezean geratu zanean, ostera alkartu ebela eleizaren laterritasunetara.

(76) Lurrarteko itsaso = mar Mediteraneo. (77) Obari-zaletasunean = ganacia, lucro, utilidad, usufructo, etc. (78) Terrakota = lur egosia. (79) Italia'ko Errepublikaren Erri-alde = canton.



Orbieton ikusketari.

3rak eta 20enetan eldu giñan Konzarako zingira edo ur geldiarene zelaietara, eta Orbietoko ardo gozoa egiten dabela jakin gendun.

Orbietoren Skaloko geltokiren enparantzatik, berez ibiltzen diran eskillarak igon genduzan, goialdean dauan “Brazzi” gorokizko gailluan⁸⁰, Orbietoko Ama Birjiñaren eleiza ikustera joateko.

Soragarria da Eleiz Nausi ori. Erromanikoan asten dana bere eraikintza eta gotikoan amaitu.

Maitani etxegille edo eraigilleak egin eutsezan azkarri ak⁸¹, eta 1.997ko lurrikararen mugimendu bidez alperrik galduta geratu ziran, gaur berrizten dabizena.

Eleiz Nagusi onetan sortu zan, izanalda edo izatealdaren⁸² miraria 1.260an, Praga de Pedrotar apaiz sinisgogor batek, ez ebalako sinis-sinisten mezako ardo ta ogia Jesusen gorputza ta odolean biurtzen zirala.

Pedro apaiz sinis gogor onek, Erromara joan zan eleiz-txango San Pedoren illobian, bere sinismena indartzeko, eta Erromatik itzultzen Bolsenan geratuta eta Santa Kristinaren elizpeko illobian mezea emoten egoala, ogiaren barrutik odola urtetan asi zan, areik eta aldareak euken oiala ia geienean busti arte.

Orbieton alabear edo beste gauza bategaitik, IV Urbano Aita Santua aurkitzen zan, eta oartuta gertakizun orren ospatsutasunarekin⁸³, odolez beteta egon liño'ko oial⁸⁴ sakratu ori berengana urbiltzeko agindu eban, eta ortik aurrera Kristautasunezko Mundu osoarentzat “Kristoren Gorputzeko” besta edo jaieguna ospatzea agindu eban.

Erritarrak eta erriko apaizak erabagita, oroigarriko liño sacratu ori toki berezi baten egon bear zala-ta, eleiza egiteko, San Konstazio ta San Brizio edo Priskako Santa Maria eleizaren bitarteko lekua aukeratu eban, eta 1.290eko Azaroaren 13an IVn. Nikolas Aita Santuak, eleiza barriaren lenengo arria, aurrealdeko laugarren zutabe edo infernua xixelkatuta dagon oiñarriean ipini eban.

Eleiza eraikiteko iru gizaldi bear izan eban, eta euki eban leenengo eraikillea Arnolfo di Kanbio izan bear izan eban, berari ezarri edo leporatzen dautsielako aurre-aldeko goi-aldean txuntxur bateko zirriborroaren egitamua, Eleiz-Nagusien ikustokian dagoena.

Antza baiña, euki eban lenengo eraikitzailea Perugiako Bebigiate lekaidea izan bear izan eban, Eleiz-Nagusi onek daukazan iru elizbarneak, berak egin ebazalako. Eta bere ostean, Giobani di Uguzzione.

Eleiza jausteko larrian egoalata, Sienako zizelkari ta etxegille Maitanitar Lorentzorengana joan ziran, eta 1.309-1.310eko urtetan eleiz-gurutze edo eleiz besoak berak asmatuta, ostiko edo ormabularrakaz indartu ebazan, eta orrez gain Orbietoko jendartearen gogoak berotu, eleizarako asmatu ebazan koloreakaz eta gaur daukan iru tontor edo iruerpiñeko aurre-aldeagaz osatuta.

Eta ez bakarrik aurrealdea, eleizbarrua be ikusgarriko itxuran edertu ebalako.

Maitanitar Lorentzo, Orbieton 1.330eko Ekainan il zan, eta eleizaren eleiz-leioa edo armailazko eleiz-balkoia* bere il-ostean amaitu eban.

Orbietoko Eleiz Nagusi au, benetan ikusgarria dala, eta ainbat argazki atara neutzezan.

(80) gorokizko gailluan = funicular. (81) Azkarri = relieve. (82) Izan-alda edo izate-alda'ren miraria = el milagro de la transubstanciación. (83) Ospatsutasunarekin = majestuosidad. (84) Liño'ko oial = paño de lino sagrado. (*) Eleiz leioa edo armailazko eleiz-balkoia = tribuna.



6retan etxerantza urten gendun, eta 8:30etan afaltzen beratu gintzazan, eta afari ostean, solasez-alai ibiligiñan Papillo ostaletxe ingurutik.

Egun onetan konturatu nintzan, Italiarrak euren ekonomi edo egiten ebazan gauzakaz, etxerakoi edo gordezaleak agertzen zirala, eta buruan ainbat oldozketa egin eta gero oartu nintzan, euren oiñarrizko jarduera edo bizilegea, aginpeko edo mendeko “BAITA” euki ebalako zala⁸⁵, eta Papillo inguruan egiten egon gintzazan osteran, orretaz berba egin gendun denbora osoan, arteko gordinkereri bitxiak euren kontura esanda ogera joan arte.

Dana dala, txangolaritzazko ikusle-egarriak ondo asetu genduzan egun ederra ospatuta.

2.009an Dagonillaren 27an.

7:30etan jagi giñan 8retan gosaria artzeko, eta 8:30etan berebilbusera igon, eguneko osteragiteko.

Markok, berebilbusetik beratu barik, goian aipatutako gaingaiñeko xixelgintzan eginda dagoan “Bakea ren Oroikarria” erakutsi euskun, eta iñork ez ebalala gure, aiñ arri aundian edertasunez xixelkatutako senatorearen kubu⁸⁶ aundi ori, esan eban.

San Roke eleiza eta San Jeronimori eskeiñita dagoan Aita Santuaren eleiz ederraren aurretik igaro giñan.

Italian, Espainako ordezkoren jauretxea.

Augustoren enparantzan, Marko Bipsiano Agripa Augustoren lobak K.o. 27an, Augustorentzat egin eban erromatar jainko guztiari eskeiñitako arrigarizko jaunobi ederra, eta 608an Bizantzioko kaizer Fokas deritsonak IV Bonifasiori duan emon eutson.

Bia del Korso eta Bia di Boka-Leon Beritateko kaltetik berebilbusean igaroten goazela, Markok, Kosmedineko Santa Mariaren eleizan egoan leoiaren aotik eskua sartu ezker, egia a la guzurra esaten bazenuen igertzen zala.

Eta kale orretatik goazela Turlon jauretxea ikusi gendun, Markok, Espainako I Juan Karlos erregea gaztetan bizi zan etxea zala esan euskuna.

Erromaren aipatuenetariko Espainako enparantzan uste dot⁸⁷, berebilbusetik beratu gintzazala, bertan eta goialdean, 1.502garren urtean Frantziako errege XII Luisek egin eban “Trinità dei Monti” eleiz ederra, eta 1.726an Frantziako errege XV Luisek, ondo apainduta beraiño egin eutsoezan arrizko eskillara eder ikusteko. Eta 1.789an erdian daukan arrixut edo obeliskua ipini eutsien.

Espainako enparantzaren izena, European, Batikanok aolkularitzazko aginpidean eukun idarragaitik beartuta, artuemoneko aolkuetan diplomazizko arlo ekintzak ugaritzen asi ziran, eta Espainak 1.653an,

(85) Aginpeko edo mendeko “BAITA” eukielako zala = conciencia subordinada, o, de servidumbre. (86) Aiñ arri-aundian edertasunez xixelkatutako KUBU = “Ara Pacis” con forma de cubo tallado en piedra. (87) Ez daukat ziurtasun aundirik emen beratu



Nikola Salbik egindako iturri au, Itsas-Aundi edo Zabala iruditzen dau, alboetan osasuna eta ulertasunezko irudiakaz adierazita. Eta daukan izena, gurutzatu egiten ziran iru kaletik datorko.

Erromako iturri onetara joaten diran biztanleak, iturria ikusita joaten diranean, lepoa edo bizkarrara emonda txanpon bat botaten dabe uraren babesa lortzeko, eta beren ospe aundia, bertan iru pelikula egin ziran bidetik etortzen jako: "Iturrian iru txanpon", "Erroman opor egunak", eta "Bizi gozagarria".

Kolonnaren Enparantzatik aldatu gintzazanean, 1.800 urte eta 40m. gain-aldeko neurrian daukan Marko Aurelioren arri tente edo zutarr ederra ikusi gendun.

bere ordezkaria bertan egon egian, Erroman leenengo egin zan ordezkartzazko⁸⁸ etxe-bizitzatik jatorko.

Eta bertan dauan gabarraren antzeko "La Barcaccia" iturrian ura edan, eta txantxa bitartez ainbat argazki atara neutsezan aren inguruai.

Aurrera eginda, ain garezti dan Mediziren Jarley etxe-ostatua erakutsi euskun Markok, eta esan be, zenbat balio dauan beren metro-laukonde bakotzak.

Espainaren ordezkari-etxea; Berninik egin eta il egin zan etxea, eta abar.

Markok, emen galdera bat egin euskun: Guk, gaztelera gurtuko keiñadari itzagaz azaltzeko, zelako berbeagaz xedatu edo mugatzen gendun. Eta uma je, ospeztu, auzpeztu, kilimusi, begiramen eta abar esanda, berak ez zan batera etortzen, eta erabagi barik itzi gendun.

Baiña etxean idazlan au egiten nauenean, gizabide edo adeitasuna⁸⁹ gogora etorri jatan, eta burua makurtuaren keiñadari gur egin edo agur egiteari⁹⁰, "UKURTU edo CORTESIA" uste dot izan zala berak aurkitzen eban itza.

Trebiko iturrira edo "Fontana de Trevi" kokatuta dauan lekura joan gintzazan eta arrituta geratu giñan oroikarri ori ikusterakoan.

117-134 urte bitartean Publio Elio "Adrianok" egineko jauretzean geratzen diran ondamenak ikusi genduzan. Eta emen Markori itandu neutson: "Munduko bigarren guda aundian, ia zergaitik lerraiekin ez zan ikutu an dauan oroikarri guzti ori". Berak erantzunda: "Oroikarri eta Batikanoa babes-teko, itzarmen edo itun bat egon zalako gudaren agintari guztiekin" erantzun eustan.

Loiolako San Inazioaren enparantzara joan giñan, eta an ikusi gendun Jesusen Lagunak daukien eleiz ederra eta bertan San Inazio illobiratuta dagon arrillobia.

Ortik, Marko Bipsanio Agripak⁹¹ K.a. 27-25 urte bitartean euren jaingo guztiari eskeiñita egin eben "Illetxea"⁹² ikustera joan giñan.

Arrigarrizko oroitzarri-jauretze orren aurre-aldean idatzita dauka: "M· AGRIPPA· L·F·COS·TERTIVM·FECIT". Nik, ez dakitena bere esangura zer dan, baiña Barroetatar Klaudioren laguntzagaz argituko dodana.

Markok, Munduko etxegille guztiak burua makurtu egiten dabela barrura sartu orduko esan euskun, eurentzat: "Bikaintasun⁹³, Edertasun⁹⁴, eta Egokitatsunaren Bikaintasuna"⁹⁵ dalako.

(88) Ordezkaritzaren etxe-bizitzatik = embajada, o casa del embajador. (89) Gizabide edo adeitasuna = fineza, urbanidad. (90) Gur egin edo agur egiteari burua makurtuaz batera = saludo de "CORTESIA". (91) Marko Bipsanio Agripa = K.a. 63-12'ko urte bitartean bizi zana. (92) Illetxea = panteon. (93) Bikaintasun = perfección. (94) Edertasun = belleza. (95) Egokitatsunaren Bikaintasuna = perfección de la armonia.



Baiña gaur erakusten dabena ez da Agripak egin ebana, 80garren urtean erre egin zalako, eta gaur ikusten doguna, K.o. 118-125 urte bitartean Adrianok egin ebana dalako.

Beren gaurko betiko itxuran agertzea, IV Bonifazio Aita Santuari zor jako, 608an Fokas⁹⁶ Bizanzioko Erromatar kaizerrak berari emon eutselako, eta eguneroko mezea emoten dabe andik ona, utsarte barik.

Rafael, etxegille ta margolari aundia be, 1.520an il zanean emen illobiratu eben.

Txilin edo Kanpaiaren enparantzara joan giñan, ikusteko ezer ez ebana euki, eta Ikastetxe Nagusiko kaletik Nabonnako enparantzara joan giñan.

Goian aipatuta daukat enparantza onen edertasuna, K.o. I gizaldian Domizianok zelai onetan egin-dako jolastokia, eta 1.644an Xn. Inozenziok Egiten egoan jauretxea, gaur Brasilgo ordezkartzaren etxea dana, Berniniri zelan agindu eutson iturriakaz edertzeko, eta onek, berak asmatuta, orduan ezagutzen ziran Munduko Lau lurralde nagusienak euren erreka nagusiakaz iturri orreitan iruditu ebazan.

Lourdes eta ni oso nekatuta egon gintzazan, eta egurazteko emon euskuen denbora, nun baiten zez-ozertzen ezarri egin bear giñela gogoratu jakun.

Domiziniario kafetegian ezarri giñan, eta Koka-kola ta garagardo bategaitik, 6 eta 9 euro ordaindu genduzan. Bereala gogoratu nintzen Astobizatar



(96) Fokas kaizerra = ?-610 urte bitartean bizi zana, eta Erromatar kaizer-lez 602-610 urte bitartean.



Juan eta bere emazte Uriartetar Anak Bruselaseko aide-portuan esan euskuna: “Garagardo edo beste zeozer artzerakoan, obe dala ardandegian zutunik zerbitzen daben lekuan artu!”. Benetan egia.

Arratsaldeko ordu biak zirala VIA-SARDGNAko kalean “La BAIA” Pizzeria jantegi etxera joan giñan bazkaltzen.

Ostean, 4’30etarako Erromako Egoaldeko Ekialdean dagoan Kastelgandolfo errira eldu giñan, eta sumendiaren agoa daukazan urgarbiak ikustera joan gintzazan.

Markok, sumendiago orrek⁹⁷ daukazan ur garbi ederrak, azpian daukazan bideetatik eta euriaren urakaz bete ta daukan neurrian irauten ebala esan euskun. Eta beren urak Erromara eroaten dabela Bia Apioko ur bidetik. “Inguru ederra benetan”.

Eta gero, sumendiaren goialdeko mendira, VIIIIn. Urbano Aita Santuak (98) egin eben gaztelu edo jauretzea ikustera joan giñan.

XIIIn. Pio Aita Santu ezkerotik⁹⁹, Aita Santu guztien oportokia izan da, eta an ikusten zan jentetza mugi-aldeetik, apaindurizko-berebilla ate aurrean dagoala, Aita Santua bertan egoala gogoratu gintzazan, baiña bera babesteko egon ziran Zuizatar gudamutillak bakarrik ikusi genduzan.

Alderdi poli ta baketsua inguru ori, eta ikustea merezi dauana.

6’30etan igon gendun berebilbusera Papillo ostaltxera joateko.

Afal ostean, Papillo ostal ingurutik solazederrean ibili gintzazan lotara joan orduko.

Erromako Uria oso garestia da, dirua atarateko daukiezan amarrukeriak¹⁰⁰ jakin ezik, euren edaritegi barru eta aurrean ipinten dabezan ezarlekuetan janedaten ezarri ezkeru, edaten doguna lau bider ordaindu bear dalako.



Eta au izan zan Erroman egin gendun azkeneko eguna.

**Atutxatar Paul
Zornotzan 2.009an Irailaren 25an**

(97) Albano izena dauka intzira edo ur-geldi ‘ko sumendi ago orrek, “lago” (98) VIII Urbano, Maffeo Barberini deitzen zana, eta 1.568-1.644 urte bitartean bizi ta Aita Santu-lez. 1.623-1.644 urte bitarean. (99) Bera izan zan Kastel-Galdonfo’ko gaztelura joan zana oporretan. (100) Amarrukeriak = artimaña, artificio, ardiz, treta.

#Euskaldun barrientzat

Zazpi utsak



Ikasten

2		6	7	4				9
			2					1 4
	5	7	8					6
			5		7			8 1
	4	8				5	3	
5	3		4		2			
	6				4	9	7	
9	2				8			
8				9	5	3		6

Sudoku

9	2	3	5	6	1	9	4	7	8
6	2	2	6	7	8	1	4	5	
1	6	5	3	2	4	9	7	8	
5	3	1	4	8	2	6	9	7	
7	4	8	9	6	1	5	3	2	
6	9	2	5	3	7	4	8	1	
4	5	7	8	1	9	2	6	3	
3	8	9	2	5	6	7	1	4	
2	1	6	7	4	3	8	5	9	

ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... 'tar'

..... kalean (auzoan)..... zenbakian

..... errian,errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzekodiru-etxera (bankura) bialdu ordain-txartela,

an daukadan zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN "ZER". Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!

San Juan de Gastelugatxe

Bizkaia maite
atzo goizean ikusi zindudan
soineko xuriz jantzia
buruan orlegi, bihotzean sua
nere gogoaren ertzatik pasatzen.
Zure usain gozoa, lana,
amodioa, itsasoa,
nere baitan sartzen.
Atzo goizean entzun nuen
zure berbaren oihartzuna,
zure kantaren fereka,
bihotzean kilika
eta ohiartzunaren haunditasunean
murgilduz joan nintzen
jausika, hegaka.
Bart arratsean
arbasoen baratzaren ondoan
bertsotan eta dantzan
lotu zinen alai piper eta gatza
sabel emankorra.
Bizkaia maite
atzo goizean ikusi zindudan
soineko xuriz jantzia
buruan orlegi, bihotzean sua.
Olerkari
penatuaren gozo eta mina
amodio eta kanta
zure berba leun,
zure gatzaren bizia,
zure burdinaren gorria dira gaur
neretzat aterbe.
Bizkaia maite
atzo goizean ikusi zindudan
soineko xuriz jantzia
buruan orlegi, bihotzean sua,
lirain, sendo, eder.

